

**50 URTE ARKEOLOGIA XIBEROAN. PIERRE
BOUCHER-I (1909-1997) OMEN EGITE / 50 ANS
D'ARCHEOLOGIE EN SOULE. HOMMAGE A PIERRE
BOUCHER (1909-1997),**

**EBRARD, Dominique (koord.)
Ikerzaleak elkarte, 297 or.
Maule-Lextarre, 2013**

Liburu hau artikulu bilduma da eta horiek lotzen dituen haria Pierre Boucher arkeologoa da. 2013ko hirugarren hiruhilekoan argitaratu zen, eta urte hartako irailean egin ziren jardunaldi eta erakusketa batzuen bidez aurkeztu zen.

Liburuaren interesa argia dela esan genezake: bestela, sakabanaturik dauden azterlanak sintetizatzen ditu eta Zuberoako historiaren zati baten ikuspegi laburra, baina zientifikoa ematen du, betiere, Pierre Bouchard-ek hasitako eta garatutako ikerketetatik hasita. Horrexegatik, lan hau, oinarritzkoa da, beraz, Zuberoan orain arteko ikerketak ezagutzeko eta etorkizuneko ikerketak egiten hasteko.

Izenean bertan datorren moduan, lanaren helburua 50 urtez Zuberoan arkeologian lan egin zuen jakintsu bati, Pierre Boucher-i, omenaldia egitea da eta haren lana gogoratzea eta biltzea, ia 300 orrialdeko lan mardul baten bidez.

Hori horrela, aipu-lan honen bidez, liburuaren nondik norakoak azaldu nahi ditugu eta lana bera ezagutarazi, iker-tzaileentzat tresna interesgarria baita.

Liburuak bi zati nagusi ditu: lehen-biziko zatian, Pierre Boucher nor zen eta zein zen haren lana azaltzen da eta, bigarren zatian, Zuberoan arkeologia bidez aztertutako gaiak agertzen

dira (ikerketen egoera eta garai desberdinetako arkeologia lanak).

Gaiok landuz, ikertzaile ugari hartu zuten parte liburuan, batez ere Iparraldekoak bai eta Hegoaldeko batzuek ere, eta hamar urte behar izan zituzten liburua osatzeko.



1. irudia. *50 urte arkeologia Xiberoan. Pierre Boucher-i (1909-1997) omen egite / 50 ans d'archéologie en Soule. Hommage à Pierre Boucher (1909-1997)* argitalpenaren azala.

Azter ditzagun, laburki bada ere, sortu zituzten artikuluak, liburuaren nondik norakoak argiago erakustearren.

Sarreraren hasieran esaten den moduan, Pierre Boucher arkeologoa, ondarearen zaindaria eta dibulgatzailea ere izan zen eta liburu honen bidez, haren lana zabaldu nahi izan da.

Jarraian, hitzaurrean, besteren artean hark sortutako *Ikerzaleak* elkarteko kide batek kontatzen digu Zuberoako ondarea handia dela, txikia izanik lurraldea, eta XX. mendean bertako arkeologiaren bultzatzaile garrantzitsue- na Pierre Boucher izan zela.

Pierre Boucher Parisen jaio eta Pauen hazi arren, ezkontzaz zuberotar egin zen eta bertako ondarean, dene- tarik aztertu eta bultzatu zuen: Histo- riaurreko harpeetatik espartinetara. Idatzi ugari egin zituen eta, hildakoan, guztiak Maule-Lextarreko Herriko Etxeari, Zuberoako Botingoari eta Herri Elkargoari laga zizkion.

Ondoren, liburua aurkezten da eta aipatu ditugun bi ataletan banaturik harilkatzen dira artikulua.

Lehen zatia: Pierre Boucher

Bi atal nagusietan lehen hau ere, bitan banatuta dago: batetik, Pierre Boucherren bizimodua erakusten digu- te, Ximun Peyran-ek egindako elkarriz- keten zatietan oinarrituta¹ eta, beste- tik, haren aurkikuntza arkeologiko eta Zuberoako ondarea babesteko egin- dako lan ugariak laburbiltzen dira.

Zati honetan azaltzen digute, nola espeleologo moduan hasi zen bere ikerketetan eta nola, horren ondorioz, 1935ean Brontze Aroko hilobiratzeak zituen Canaule ou La Canolo (Gouret- te) haitzuloa aurkitu zuen eta 1950ean margodun Etxeberri eta Sasiziloaga (Arbailako mendietan).

Laplace-rekin, Bordes-ekin eta Jose Migel Barandiaranekin lan egin zuela kontatzen zaigu: bai Dordogne aldean, baina baita Gatzarrian (Zuberoa), Le- zetxikin (Gipuzkoa) edo Solacuevan (Araba).

Haren bizitzan zehar egindako mia- keten zerrenda ere oso luzea da: Na- farroa Beherean eta Zuberoan megalit- toak, harpeak (Erdi Paleolitotik hasi eta Brontze Arora artekoak)...

Erakundeek ondarea babes zezaten borrokatu zen ere eta, besteak beste, Mauleko gaztelua konpontzea bultzatu zuen.

Azkenik, bere bilduma publikoari eman ziola azpimarratzen da: zoriz aurkitutako objektuak, indusketen ondorio zirenak, idatziak eta liburuak, eta *Maison de Patrimoine de Soulen* gordetzen da guztia.

Bigarren zatia: Arkeologia Zuberoan

P. Boucherrek lan egindako gai- eburuz, beste ikertzaileek egindako arti- kuluen bilduma da bigarren atal nagusi hau.

Hasteko, D. Ebrard-ek lehen artiku- luan laburpen bat egiten du Zuberoako Historiaz, lehen Behe Paleolito Aroko aztarnetatik Goi Erdi Arora grafiko eta datazio-taula interesgarri batzuekin eta bide ematen die, ondoren, gaika anto- latzen diren artikuluei.

Garai kronologikoen arabera anto- latuta daudenez, lehenak, Erdi eta Goi Paleolitoaz ari dira:

Lehenengoan, D. Ebrard eta R. Névéol-ek Arbaila mendietan aurkitu- tako neandertal gizakien aztarnen ikerketa txiki bat egiten dute (P. Bou- chard-ek aurkitutako 3 haitzuloenak: Harregi eta Gatzarria haien artean).

Hurrengo artikuluan, A. Sáenz de Buruagak Gatzarrian Laplace-k 1961 eta 1976 artean egindako indusketen sintesi bat egiten du.

1. *Le Miroir de la Soule* aldizkarian 1994-1995 artean argitaratu zirenak jatorrian.

Hirugarrengoan, zenbait egilek, D. Ebrard, A. Sáenz de Buruaga, J. A. Mujika eta R. Névéol-ek, 1954-1960 artean Pierre Bouchard-ek Harregin egindako indusketen sintesi bat egiten dute.

Ondoren, A. Sáenz de Buruaga-k sintesi bat egiten du azken Würm eta klima-aldaketaren artean gertatutako kultura-bilakaeraz.

Azkenik, D. Ebrard-ek Arbaila mendietan dauden margodun hiru haitzuloak aztertzen ditu: Sasiziloaga, Etxeberri eta Zihinkola (azken hori Y. Raulinek aztertzen du aparte sakonago).

Hurrengo aztertzen den aldia, jakina, Mesolito Aroa da, eta osatzen duten bi lanak honakoak dira:

Itelatseta haitzuloaren ikerketa, D. Ebrard, P. Boucher bera, M. Livache eta R. Névéol egileena, eta harpeetako hartz-aztarnei buruzko artikulutxoa, D. Ebrard-ena.

Ostera, Neolito Aroa eta Metal Aroak era zabalagoan aztertzen dira liburuan:

J. A. Mujikak Euskal Herriko Neolito Aroaz sintesi bat egiten du, azpiatalaren sarrera labor gisa (meritua duena Euskal Herri osoa hartzen baitu eta ez da izaten, zoritxarrez, ohikoena) eta, ondoren, D. Ebrard-ek lehen nekazaritza Zuberoan aztertzen du.

Ondoren dator J.-P. Besson eta M. C. Delmas-Bernes-ek Larrau haitzuloan aurkitutako harri leunduzko aizkoraren aurkikuntzaren azterketa; D. Ebrard-ek Eltzegaineako harpe margodunarena (kondaira bat ere baduena) eta, horren ondotik, egile berak egindako Zuberoako ehorzketa-haitzuloa.

Hurrengo artikuluan, Gurs-eko tumulua aztertzen dute D. Ebrard, J. A. Mujika, A. Sáenz de Buruaga, M. Saule eta A. Tarriño egileek.

Berriro ere, J. A. Mujikak Megalitis-moa Euskal Herrian laburtzen du, lan oso sintetiko batean.

Gero datoz, Ite 1 eta Ite 2 trikuharri buruzko D. Ebrard eta P. Boucher-en ikerketak (benetan material ikusgarriak emandakoak); Bagargiako zistan P. Boucher-ek 1968-1972an egindako indusketen sintesia, D. Ebrard-ek egina; eta, azkenik, J. Blot-ek egindako Millagate IV eta Veko baratzeen ikerketa.

Azken «aldi» kronologikoa liburuan, Burdin Aroa, Erromatar garaia eta Goi Erdi Aroak osatzen dute bildurik:

J. L. Tobie eta D. Ebrard-ek garai hauetako aurkikuntzen katalogo bat argitaratzen dute, taula eta mapa baten bidez. Bertan aztarnategiaren izena, kokalekua, aurkitutako materialak eta noren aurkikuntza den azaltzen dira eta 13 fitxa gehigarri daude aurkikuntza nagusiak era sakonago batean jasotzen dituztenak.

Ondoren, D. Ebrard-ek, P. Allard, P.-P. Dalgarrondo eta A. Socarros-ekin, Zuberoako gazteluei eta beste gotorlekuei buruzko artikulua bat osatzen dute, argazki bidez esanguratsuenak jasoz, dagoen bibliografia bilduz, eta inbentario berri bat egin beharra dagoela azpimarratzen dute.

Zerrenda honen bukaeran, lur eta harri tumulu historikoez hiru artikulua txiki jasotzen dira: D. Ebrard, J. A. Mujika eta J. L. Tobierena Igeloako tumulu batean egindako ikerketari buruzkoa; eta D. Ebrard eta D. Sarra-magnan-ek Pottoko tumuluaz eta Eltzarreko ordokikoez egindakoak.

Liburuan ondorioen atal bat agertzen da, bukaera emateko asmoz:

Ikerketa hauek 1950 eta 2000. urteen artean egin eta sakabanaturik argitaratu zirela esaten dute liburuaren egileek, eta horregatik zela hain garrantzitsua bilduma moduko hau egitea, etorkizuneko ikerketek nondik hasi izan dezaten eta, bide batez, arkeologo hark egindako lana ahaztu edo gal ez dadin.

Pierre Boucherren bilduma Maule-Lextarreko Ondarearen Etxean (*Maison du Patrimoine de Mauléon-Licharre*) gordetzen dela gogorarazten digute eta horren helburua dela jendeak ikus dezala, tokiko ondarearenganako sentsibilizazioa sor dadin (batez ere gazteengan) eta etorkizunean ikerketarako gogoia susta dezan, aurkikuntzak egin zireneko lekutik gertu gordetzen den bilduma gutxietako bat baita [Frantziako estatuan].

Azkenik, liburua frantsesez egindako terminoen hiztegi txiki batekin

amaitzen da (arkeologiarako oso erabilgarria dena).

Ikuspegi ugari lan baten aurrean gaude, beraz, eta artikulu bilduma guztiei gertatzen zaien moduan, askotariko gaiak lantzen ditu. Horren arrazoia garbia da, pertsona baten eta haren lanen inguruan sortu denez, eta hark gai ugari landu zituen, hori dena jasotzen ahalegindu direlako, gaiei sarrera egiten dieten sintesi-lan txiki batzuekin jantzita. Liburuko artikuluak laburrak dira, P. Boucherrek lan egindako aztarnategien txosten txikiak direlako (era zientifikoan emanak, hori bai), ezagutarazteko, batik bat, eta toki bakarrean biltzeko eta, bestela, segurua, liburua luzeegia izango zelako. Horrek irakurlea gehiagorako gogoarekin lagatzen du, liburuaren helburua ere badena, etorkizuneko ikerketen sustatzaile eta oinarri izan nahi baitu eta horretako bidea irekitzen baitu.

Jaione Agirre García